



# ESKI ASTEBURUA BELAGUAN

## MARTXOAREN 16 eta 17an

## DBH1ETIK AURRERAKO IKASLEENTZAT

Laudio Ikastolak **Belaguan** ipar eskia egiteko asteburu osoko irteera antolatu du Ikastolen Elkarteko Zirimola aisialdi taldearekin elkarlanean.

Eski asteburua **martxoaren 16 eta 17**rako programatu da. Irteera goizeko 06:30ak aldera izango da eta Laudiora bueltan heltzeko ordua 19:30erako aurreikusten da.

Partaideek eraman beharrekoa:

- Lehenengo eguneko bazkaria.
- Motxila txikia pistetara eramateko.
- Eguzki krema eta ezpain babeslea.
- Aterpetxean egoteko eta lo egiteko arropa. Baita lo zakua ere.
- Bestelako arropa: Anorak lodia / -Garbitasunerako: eskuoihala, xaboiak, hortzak garbitzekoak,... / Betaurrekoak / Eskularruak / Txanoa / Eskiatzeko edo sirazko galtzak.

Ekintzak **200 euroko kuota** izango du eta barne izango ditu **forfaita, baliabide materialak, 4 orduko prestakuntza egun bakoitzean, aseguru, aterpetxea pentsio osoan, hezitzaileak eta garraioa.**

### AURRETIKO IZEN-EMATEA

Aurretiko **izen-ematea urtarri-laren 10era arte** burutu ahal izango da ondorengo formularioan:

**izena eman** 

Ekintza aurrera ateratzeko **gutxienez 30 partaide beharko dira.** Gutxienezko kopurua ziurtatutakoan izena eman dutenek konfirmazio mezua jasoko dute emandako posta elektro-



niko kontuan eta **gizarte seguratzako txartelaren kopia idazkaritzara helarazi** beharko dute.

Kuotaren **kobraketa** egiteko bi modu daude:

- 1) Dena (200€) otsaileko erreziboan.
- 2) Erdia (100€) otsaileko erreziboan eta beste erdia (100€) martxoko erreziboan.

### BAJA IRIZPIDEAK

**Otsailaren 15a** (hau barne) baino lehen jakinarazitako bajei **ez zaie kobratuko.**

**Otsailaren 16tik** (hau barne) aurrera ondorengo **baja irizpideak** aplikatuko dira:

-%90a ez da kobratuko (hau da, %10a kobratuko da) ondorengo kasuetan, beti ere, agiri baten bidez frogatuta: A) gaixotasun edo istripua, medikuaren froga-agiria behar da. B) Joatea eragozten duen ustekabeko edo beharrian larria, beti ere justifikatuta badago.

-Baja aurreko arrazoiengatik ez bada, kuotaren %80a kobratuko da.